



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2022/23 Denboraldia

13. ZIRKULARRA

KADETEEN EUSKAL LIGA LEHIAKETAKO ARAUAK ETA OINARRIAK

Zirkular honen bidez argitaratzen da Kadeteen Euskal Ligako 2022/23 denboraldiko antolakuntza eta garapena arautzen duen araudia.

Aipatutako arauak eta dagozkien eranskinak bildu dira.

Bilbo, 2020ko irailaren 15a

ALLICA


KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

KADETEEN EUSKAL LIGA LEHIAKETAKO ARAUAK ETA OINARRIAK

2022/2023 DENBORALDIA





EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

XEDAPEN OROKORRAK

AURREKOA. - APLIKATU BEHARREKO ARAUBIDEA.

2022/2023 denboraldian autonomi mailako Kadeteen Euskal Ligako lehiaketa ofizialaren antolakuntza eta garapena Euskadiko Futbol Federakundeak (EFF-FVF aurrerantzean) argitaratutako oinarrien eta araudien mende egongo dira, federazioaren antolamendu juridikoko gainerako arauetan xedatuari kalterik egin gabe.

EFF-FVF-ak beretzat gordetzen du bere eskumeneko beharrezko aldaketak sartzeko eskubidea, edo dagokionean, eskudun organoari proposatzekoa eta lehiaketako araudi eta oinarri hauek interpretatzekoa.

LEHENA. - LEHIAKETAREN TITULARTASUNA ETA SAILKAPENA.

Kadeteen Euskal Liga autonomi mailako kadeteen lehiaketa ofiziala da, eta EFF-FVF-ri dagokio lehiaketaren titulartasuna.

BIGARRENA. - EGUTEGIA.

Lehiaketa egutegi ofizialaren arabera egingo da, eta egutegi hori zirkular honi lotuko zaio, 1. eranskin gisa.

HIRUGARRENA. - LIZENTZIAK ESKATZEKO ALDIAK.

2022/2023 denboraldirako lizentziak eskatzeko epea 2022ko uztailaren 1ean hasiko da, eta, EFF-FVFren Erregelamendu Orokorren arabera, azken bost partidetatik lehena egin baino berrogeita zortzi ordu lehenago amaituko da. Lehiaketaren formatua 2022/23 denboraldi honetarako desberdina eta bi fasez osatua denez, EFF-FVFak erabaki du futbolari bat Kadeteen Euskal Ligan lerrokatu ahal izateko lizentzia eduki behar duela Bigarren Fasea hasi baino lehen, hau da, 2023eko otsailaren 18a baino lehen.

LAUGARRENA. - LIZENTZIA KOPURUA, TALDE BAKOITZEKO.

Kadetten Euskal Ligako klubek gehienez 25 jokalaria-lizentzia lortu ahal izango dituzte.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

BOSTGARRENA. - JOKOKO ARAUAK.

Partidak eta lehiaketa, betiere, International Football Association Board-en (IFAB) Joko Arauen arabera jokatuko dira.

SEIGARRENA. - BALOI OFIZIALA.

Partidak jokatzeko erabiliko den baloia Adidas markako **TIRO COMPETITION** izango da.

ZAZPIGARRENA. - UNIFORMEAK.

1. Futbolarien uniformeek horretarako Erregelamendu Orokorrean jasotako xedapenak bete beharko dituzte, eta gutxienez bi eta gehienez hiru izan beharko dute; eta EFF-FVF-ri jakinarazi beharko zaie kirol-denboraldi bakoitzeko lehiaketa ofizialeko lehen partida izan baino hamabost egun lehenago gutxienez.
2. Klubak lehenengo uniforme ofizialarekin arituko dira, elkarren aurka aritu behar duten bi taldeen uniformeak berdinak ez badira; berdinak edo antzekoak izanez gero, eta epaileak usteko balu horrek nahasmena ekar dezakeela, kanpoko zelaian ari denak aldatu egin beharko du berea, aldiz, partida zelai neutralean bada, EFF-FVF-en afiliatorik modernoena duen taldeak aldatu beharko du.
3. Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, klubek bidaia hasi aurretik hartu beharko dituzte uniformeak aldatu ahal izateko neurriak, ondorioz, bi ekipamendu eraman beharko dituzte nahitaez.
4. Kamisetaren atzealdean, ondo ikusteko moduan, nabarmenduta eta kontraste nahikoarekin, dagokien lerrotatze-zenbakia agertuko da: 1etik 11ra titularrak eta 12tik 20ra ordezkioak, gehienez ere, hogeita bost zentimetroko altueran.
5. Nahi duten klubek 1etik 25era bitarteko zenbakiak ezarri ahal izango dituzte gehienez, eta bakoitzak partida guzti-guztietan erakutsi beharko ditu. 1 eta 13 zenbakiak atezaintzat gordeko dira. Modalitate hori aukeratzen duten klubek EFF-FVF-ri jakinarazi beharko diote, lehiaketa hasi baino hamar egun lehenago, beren plantillako futbolarien zerrenda eta bakoitzari egotzitako dortsal zenbakia. Klub filialetako edo mendeko taldeetako jokalariek ere zenbaki finko batekin jardun beharko dute parte hartzen duten bakoitzean, 26tik aurrera.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

ZORTZIGARRENA. - LANALDIA ETA ORDUTEGIAK.

- a) Egutegi ofizialean finkatutako egunetan izango dira partidak, Araudi Orokorrean xedatuari eta EFF-FVF-ak adostuari kalterik egin gabe.
- b) Talde antolatzaileek larunbatetara aurreratu ahal izango dituzte norgehiagokak, aurkariaren adostasuna behar izan gabe.
- c) Halaber, ordutegi-tarte bat ezarri da, eta tarte horretan hasi beharko dira partidak, 10:30etik 13:15era eta 15:30etik 19:30etara, klubak ados jarri ezean.
- d) Partidak lanegunetan egiten direnean, klub antolatzaileek 19:30etik 20:30era bitartean finkatuko dute hasteko ordua. Kluben batek ordutegia aldatu nahi badu, aurkariaren baimena beharko du, eta hark idatziz adieraziko du.
- e) Klubek EFF-FVFri eta aurka egiten duen taldeari jakinarazi beharko diete partidaren ordutegia, gutxienez, partida hasi baino zazpi egun lehenago, horretarako EFF-FVFn intranetean jarritako pasabidearen bidez edo, bestela, posta elektronikoz, helbide honetara idatzita: info@euskadifutbol.eus

BEDERATZIGARRENA. - JOKALEKUA ETA INSTALAZIOAK

Kadeteen Euskal Ligako Txapelketako instalazioei dagokienez, klubek EFF-FVFri jakinarazi beharko diote, lehiaketa hasi baino hamabost egun lehenago gutxienez, egoera, neurriak, azalera-mota eta jokaleku alternatibo bat. Instalazio guztiek Erregelamendu Orokorreko 71. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa bete beharko dute.

HAMARGARRENA. - JOKALARIEN ZERRENDA.

1. Partida hasi baino lehen, talde bakoitzeko futbolari titularren eta aldi baterako ordezkoen zerrenda eman beharko zaio arbitroari, baita aulkian jar daitezkeen teknikarien zerrenda ere.
2. Menpeko taldeetatik edo talde filialetatik datozen jokalariek, Erregelamendu Orokorreko 14. eta 19. artikuluen arabera, futbolari titularren edo ordezkoen zerrendan sar badaitezke, esku hartuko duten taldeko jokalarientzat erregelamenduz ezarritako epean inskribatu beharko dira. Partidaren garapenari dagokionez, horietako lau jokalarik parte hartu ahal izango dute gehienez zelaian.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

3. Denboraldian zehar talde nagusian edo babeslean parte hartzeko aukera bertan behera geratuko da, baldin eta jokalariei, goikoan izena emanda egon arren, denboraldi berean baja eman eta beheragokoan formalizatu bazaie izen-ematea.
4. Jokalarien zerrendak ez du inola ere Araudi Orokorren 88. artikuluan xedatutakoa urratuko.

HAMAIKAGARRENA. - ORDEZKOAK ETA ORDEZKAPENAK.

Ordezkoen kopurua ezin izango da, inola ere, zazpi futbolari baino gehiagokoa izan.

Partida batean gehienez ere ordezko **bost** jokalarik jokatu ahal izango dute, jokalarik titular bat ordezkatuta, talde bakoitzari aldez aurretik arbitroak onetsitako hiru etenalditan, orotara.

Hori egin ondoren, jokalarik ordezkatuak irten egin beharko du jokalekutik, hark gertuen duen muga-lerroa igarota, eta ezin izango du berriz lehian parte hartu.

Hori guztia International Football Association Board (IFAB) emandako 2020ko 19. eta 20. zirkularretan jasotakoari jarraituta.

Partidan zehar, beroketa ariketak 1. zenbakiko arbitro laguntzailea dagoen bandan soilik egin ahal izango dituzte jokalariek, gehienez hiru jokalarik talde bakoitzeko. Kanpora bidalitako futbolari bat ezin izango da inolaz ere ordezkatu.

HAMABIGARRENA. - PUBLIZITATEA.

Partida hasteko adierazitako orduetik aurrera, ezin izango da inolako publizitaterik erakutsi arlo teknikoan, ez eta jokalekuan, banda-marratik edo helmuga-marratik kanporantz metro batera ere, ez ateen markoetan eta sareetan, ezta kornarren banderatxoetan ere. Ondorio horietarako, jokalekua da hau da: bera osatzen duen laukizuzenaren guztizkoa, ateen albokoak barne.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

HAMAHIRUGARRENA. - ENTRENATZAILEAK.

Gogorarazten da nahitaezkoa dela entrenatzaile tituluduna izatea, gutxienez 1. mailakoa edo entrenatzaile izateko oinarritzko diploma/UEFA B lizentzia.

Ezinbesteko kasuetan izan ezik, entrenatzaileak bere taldeak edozein txapelketatan jokatzen dituen partidetan egon beharko du, dagokion aktan hala agertuko da eta bere eserlekua beteko du partidan zehar.

HAMALAU GARRENA. - DELEKATUAK.

Gogorarazten da nahitaezkoa dela gutxienez taldeko ordezkari bat izatea, kategorian izapidetutako federazio-lizentziarekin.

Ezinbesteko kasuetan izan ezik, ordezkariak bere taldeak edozein txapelketatan jokatzen dituen partidetan egon beharko du, eta hala agertuko da dagokion aktan eta bere eserlekua beteko du partidan zehar.

HAMABOST GARRENA. - ARBITRAJEA.

Arbitroen izendapenari eta arbitroen ordainsariei buruzko alderdiei dagokienez, EFF-FVren Erregelamendu Orokorrean eta Arbitroen Euskal Batzorde Teknikoak eta organo eskudunak hartutako erabakietan xedatutakoari jarraituko zaio, hala badagokio.

EFF-FVfK 2022/23 denboraldirako onartu duen tarifa **46 €**-ko ordainagiri bakarra da.

Zenbateko horretan kontzeptu guztiak sartzen dira, bai arbitraje-eskubideak, bai arbitroaren dietak eta bidaia-gastuak. Ordainagiri hori jokalekuaren titularrak ordaindu beharko du.

Ordainketa banku-transferentziaren bidez egingo da, Arbitroen Euskal Batzordeak prestatzen duen kontuan, jakinarazten diren aukeren artean klubak aukeratzen duen modalitatean.

Klubek lurraldetasun desberdineko (eremu autonomikoko) arbitroa eskatuz gero, partida egin baino zazpi egun lehenago egin beharko da gutxienez, eta sortutako gastu guztiak eskatzailearen kontura izango dira.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

HAMASEIGARRENA.- OHARTARAZPEN ETA ZIGOR ZIKLOAK ZEHAZTEA.

Kadeteen Euskal Liga Txapelketan, denboraldi berean bost ohartarazpen metatuz gero, jokalaria ez ingo du hurrengo partida jokatu, eta EFF-FVF-ko Diziplina Kodearen 30. artikuluan, kasu bakoitzaren arabera, aurreikusitako diru-osagarria ordaindu beharko du.

EFF-FVF-ko Zigor Kodeko 34. artikuluan xedatuaren mende daude partidetakozigoren zehapenak.

HAMAZAZPIGARRENA. – DIZIPLINA ARAUDIA.

Lehiaketa hau Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina Araudiaren arabera arautuko da, eta sortzen diren gorabeherak Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina eta Apelazio Batzordeak izango dira.

HAMAZORTZIGARRENA.- ESKUERAKUTSIAK ETA OMENALDIAK EGITEA

Denboraldi honetarako zirkularraren arabera, gorazarre egiteko, omentzeko edo aitortzak egiteko ekintzak EFF-FVFak baimendu beharko dituzte, eta gehienez ere partida hasi baino 72 ordu lehenago egin beharko da eskaria. EFF-FVFri ekitaldi hauek egiteko baino ez zaio eskatuko baimena:

- a) Minutuko isilunea egiteko edota elastikoan besoko beltza eramateko. Errespetuzko omenaldia eragiten duen heriotza aurreikusitako epetik kanpo gertatzen bada, ez da beharrezkoa izango RFEFren baimena, eta omenaldia egin nahi duen taldeko ordezkariak horren berri eman beharko dio arbitroari, instalaziora iristean, partida egiteko behar diren neurriak har ditzan.
- b) Ohorezko sakeak.
- c) Trofeoak ematen direnean, partida hasi baino zazpi minutu lehenago bukatu beharko dute.
- d) Klubak zaleei, oinarrizko futbol-taldeei eta bestelakoei egin nahi dizkien omenaldiak: ekitaldi horiek partida hasi baino zazpi minutu lehenago bukatu beharko dira.

Euskal futbol osoaren edo maila jakin baten edota berariazko txapelketa baten izenean ekitaldiak adosteko eskumena EFF-FVF-ak baino ez du izango.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

HEMERETZIGARRENA. – PARTE HARTZEKO ADINAK.

2007. eta 2008. urteetan edo geroago jaiotako jokalariek parte hartu ahal izango dute lehiaketa honetan

KADETEEN LIGAKO LEHIAKETAKO OINARRIAK

LEHENA. - PARTE HARTZEN DUTEN TALDEAK.

Kadeteen Euskal Ligako taldea 20 klubek osatzen dute, hamar taldeko bi azpimultzotan banatuta. Talde eta multzo horiek 2. eranskinean ageri dira.

BIGARRENA. - LEHIAKETA-SISTEMA.

Kadeteen Euskal Ligako Txapelketa.

Lehiaketa bi fasetan egingo da: lehenengoa arauzko lehiaketari dagokiona izango da, bigarrenak bi fase espezifiko hartuko ditu (Kadeteen Euskal Ligako txapeldunentzako bigarren fasea eta Kadeteen Euskal Ligan irauteko bigarren fasea).

I. Lehen fasea (A eta B)

Klub parte-hartzaileak talde kopuru bereko bi azpitaldetan banatuko dira, ahal den neurrian.

Parte hartzen duten klubek bi bueltan jokatu dute puntu-sistemaren bidez, eta azken sailkapena erabakiko da, klub lehiatzaile bakoitzak lortutako puntuen arabera: hiru puntu irabazitako partida bakoitzeko, puntu bat berdinketa bakoitzeko eta zero puntu galdutako bakoitzeko.

Bigarren fasea bi azpimultzotan banatuta egongo da: bata, Kadete Mailako Euskal Ligako Txapelduna zehazteko; bestea, Kadete Mailako Euskal Ligan jarraitzeko.

EFF-FVFK erabaki duenez, A eta B azpimultzoetako Lehen faseko lehen bost sailkatuek Kadete Mailako Euskal Ligako Txapelduna zehazteko Bigarren



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Fasea jokatuko dute, eta bi azpimultzoetako azken bost sailkatuek Kadete Mailako Euskal Ligako Iraunkortasunaren Bigarren Fasea.

Lortutako puntuak edo koefizienteak, talde bakoitien kasuan eta golak, hala aldekoak nola kontrakoak, hurrengo fasera eramango dira, eta talde bakoitzak lehen fasean lortutako puntu eta golekin hasiko du berriazko fasea.

II. Bigarren faseak.

Talde bakoitzeko taldeen osieran aurretik azaldutako irizpideak hartuko dira kontuan, A azpimultzoko taldeek aurre egin beharko dietela B azpimultzoko taldeei, itzuli bikoitzean, eta ezin izango dietela aurre egin Lehen faseko azpimultzo berean egon ziren taldeei.

Sailkapena puntu-sistemaren bidez egingo da, eta azken sailkapena klub lehiakide bakoitzak lortutako puntu edo koefizienteen arabera ezarriko da: hiru puntu irabazitako partida bakoitzeko, bat berdindutako partida bakoitzeko eta zero galdutako partida bakoitzeko. Puntu edo koefiziente horiei puntuak edo koefizientea gehituko zaizkie, bai eta aldeko eta kontrako golak eta lehen fasean lortutako emaitzak ere.

HIRUGARRENA. - ONDORIOAK SAILKAPENEAN.

1. Txapelduna.

Kadeteen Euskal Ligako txapeldun izango da Kadeteen Euskal Ligako Txapelketaren Bigarren faseko lehen postuan geratzen dena.

2. Jaitsierak.

EFF-FVFK 2022-2023 denboraldirako Kadete Mailako Euskal Ligatik Lurraldeko Ligara jaitsierak **bost** izango direla adostu du.

3. Bazterketak edo ez-agertzeak.

Bi aldiz ez agertzeagatik lehiaketatik kanpo gelditzen den kluba, edo lehiaketatik erretiratzen dena, ez da parte-hartzailezat hartuko, sailkapeneko azken tokia hartuko du, zero punturekin, eta aurreikusitako jaitsiera-postuen artean konputatuko da.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

LAUGARRENA. - POSTU HUTSAK BETETZEA.

Beste edozein arrazoiengatik postu hutsak sortuz gero, Erregelamendu Orokorrek horri buruz xedatzen duena beteko da.

BOSGARRENA. - EMAITZAK ZEHAZTEA, AZKEN SAILKAPENEAN BERDINKETA IZANEZ GERO.

Bi klubek puntu edo koefiziente berdinekin amaitzen badute Ligako Txapelketa, Erregelamendu Orokorreko 101. artikularen arabera, honela argituko da berdinketa, azaldutako ordenan, non eta covidaren ondorioz ez diren ezarri behar berariazko arauak:

1. Elkarren aurkako partidetan sartutako eta jasotako golen arteko alderik handiena.
2. Txapelketaren konputu orokorrean sartutako eta jasotako golen arteko alderik handiena.
3. Bere alde golik gehien sartutakoa.


Bi klub baino gehiagok Ligako Txapelketa puntu edo koefiziente berdinekin amaitzen badute, Erregelamendu Orokorreko 101. artikularen arabera, berdinketa honela argituko da, azaldutako ordenan eta modu baztertzailan:

1. Puntuazio hobea haien arteko partidetan, gainerako taldeek parte hartuko ez balute bezala.
2. Aldeko eta aurkako golen alde handiagoa, haien artean jokatutako partidetan.
3. Golen alde handiagoa, lehiaketako zenbaketa orokorrean egindakoen eta jasotakoen artean.
4. Aldeko gol-kopururik handiena lortu duena.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

1. ERANSKINA





EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

	abu-22		ira-22		urr-22		aza-22
	KEL		KEL		KEL		KEL
7		4		2	AB - 3. IHA.	6	AB - 8. IHA.
14		11		9	AB - 4. IHA.	13	AB - 9. IHA.
21		18	AB - 1. IHA.	16	AB - 5. IHA.	20	Selelekzioa
28		25	AB - 2. IHA.	23	AB - 6. IHA.	27	AB - J10
				30	AB - 7. IHA.		


	abe-22		urt-23		ots-23		mar-23
	KEL		KEL		KEL		KEL
4	AB - J11	1	Gabonak	5	AB - J18	5	CD - J3
11	AB - J12	8	AB - J14	12	Selekzioa	12	CD - J4
18	AB - J13	15	AB - J15	19	CD - J1	19	CD - J5
25	Gabonak	22	AB - J16	26	CD - J2	26	CD - J6
		29	AB - J17				

	api-23		mai-23		eka-23
	KEL		KEL		KEL
2	Selekzioa	7	CD - J10	4	
9	Aste Santua	14	Kopa	11	
16	CD - J7	21	Kopa	18	
23	CD - J8	28	Kopa	25	
30	CD - J9				



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2. ERANSKINA





EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2022/2023 DENBORALDIA

KADETEEN EUSKAL LIGA TXAPELKETA

PARTE HARTZEN DUTEN KLUBAK

Hurrengo 20 klubak, bi azpimultzotan banatuak, honela osatuko dira:

Kadeteen Euskal Liga.- Abetxuko A.D.C., Antiguoko K.K.E., Añorga K.K.E., Athletic Club, Bergara K.E., Cultural Deportiva Durango, Danok Bat Club, Deportivo Alavés, S.D. Eibar, C.D. Getxo, S.D. Indautxu, Kostkas K.E., S.D. Leioa, C.D. Olarizu, Real Sociedad de Fútbol, Romo F.C., Santutxu F.C., Tolosa C.F., C.D. Vasconia, Zarautz K.E. (20)

A azpimultzoa.- Athletic Club, Antiguoko K.E., Bergara K.E., Cultural Deportiva Durango, Danok Bat Club, S.D. Indautxu, Kostkas K.E., S.D. Leioa, Romo F.C., Zarautz K.E. (10)

B azpimultzoa.- Abetxuko A.D.C., Añorga K.K.E., Deportiva Alaves, S.D. Eibar, C.D. Getxo, C.D. Olarizu, Real Sociedad de Fútbol, Santutxu F.C., Tolosa C.F. C.D. Vasconia (10)
